



VALENTINO TXOLARREA TESTURAKO JARDUERAK

Valentino txolarrea ipuinak **Planetarekiko erantzukizuna** lantzea du xede: guztiok baldintza egokietan bizi gaitezen, funtsezkoa da gure neska-mutilei natura maitatzen eta ingurumena zaintzen erakustea.

Jarduera hauen bidez lan ditzakegun edukia:

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala:** 1. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena:** 1. eta 3. blokeak.

1 ZUHAITZAK ETA BASOAK

Beharoko dugun materiala:

Eranskinetako zuhaitzaren txantiloien fotokopiak.

Hezitzailearentzako oharra:

Ipuina kontatu baino lehen, baso, pinudi eta gorostien irudiak bilatuko ditugu, ikasleei erakusteko eta ipuina bere testuinguruan kokatzen laguntzeko.

Basoen onurez aritzean, honako hauek aipa ditzakezu, besteak beste:

- Basoetan biodibertsitate handia topa dezakegu; landare eta animalia ezberdin asko bizi dira haietan.
- Basoek uraren zikloa kontrolatzen laguntzen dute. Hezetasun handia izaten da haietan eta hodeiak sortzen dira horrela.
- Zuhaitzek, beren sustraien bidez, lurra eusten laguntzen dute.
- Botika asko basoetan jaiotzen diren landareekin egiten dira.

Basoetan arau garrantzitsu batzuk bete behar dira. Adibidez:

- Errespetatu egin behar dira basoan bizi diren animaliak eta landareak; ez dira molestatu behar eta ez dira hondatu behar.
- Ez da lurrean ezer utzi behar; hondakin guztiak jaso eta eraman egin behar dira.
- Ez da sekula surik egin behar.

Garapena

1. fasea: Zuhaitzak eta basoak

- Ipuineko protagonista, Valentino, baso batean bizi da. Lehenik eta behin, basoak nolakoak diren ikusiko dugu. Honelako galderak egin ditzakegu:
 - Basoa zer da?
 - Zer zuhaitz ezagutzen dituzue?
 - Nolakoak dira? Dakitena esan dezatela.
 - Basoak zergatik dira garrantzitsuak?



Material grafikoaz baliatuz, Valentino pinudi batean bizi dela esango diegu (pinuz osatutako baso batean, alegia), eta gorostiaren fruituak jaten dituela.

- Egon al zarete inoiz pinudi batean? Ba al dakizue gorostia nolakoa den?
- Basoetan zer animalia bizi dira?
- Gogorarazi basora joatean bete behar ditugun arauak eta zerrenda batean jaso:
 - Doazela esaten basoa errespetatzearen inguruan ezagutzen dituzten arauak.
 - Zaintzen al duzue natura? Adibidez, itsusiak iruditzen zaizkizuen intsektuak hiltzen ibiltzen al zarete?


2. fasea: Gure basoa

- Eman ikasleei zuhaitzen txantiloia. Bakoitzak nahi bezala margo eta apain dezala bere zuhaitza.
- Zuhaitz guztiak elkarrekin jarri, eta baso bat osatuko dugu. Gelan ondo ikusteko moduko leku batean itsatsiko ditugu, eta basoen onura guztiak erreparasatuko.

3. fasea: Basoan barna

- Gure basotxo prest daukagunean, irudimenaz baliatuz ibilalдитxo bat egingo dugu basoan barna.
- Begiak ixteko eskatuko diegu, eta pentsa dezatela bidetxo bat hartu eta baso batean barneratu garela, eta bidearen alde bietan zuhaitz luze-luzeak daudela.
- Denon artean, basoan kontuan izan beharreko arauak gogoratuko ditugu.
- Bidean aurrera goazela, bat-batean, hondakin batzuk topatu ditugu: botila bat, lata bat, aluminiozko papera. Zer egingo dugu?
- Bidearen erdi-erdian animalia bat dago eta ez digu pasatzen uzten. Zer animalia da? Zer egin behar dugu? Animalia beldurtu egin da eta korrika ihes egin du.
- Bidearen amaieran, ur garbi-garbia daraman ibai batera iritsi gara. Zer egin behar dugu ibaia garbi mantentzeko?
- Ibaiaren ertzean dauden batzuek barbakoa bat egin nahi dute eta bazkaltzera gonbidatu gaituzte. Zer esan behar diegu?
- Ibaiaren ertzean eseri gara eta motxilatik ogitartekoak atera ditugu. Bazkaltzen bukatutakoan, zer egin behar dugu gure hondakinekin?
- Errepasa dezagun ibilalдитxo honi esker basoak zaintzeari eta basoetan bizi diren animalia eta landareak errespetatzeari buruz ikasi dugun guztia.

ERANSKINA



2: HAUXE DA VALENTINO




Beharke dugun materiala:

Eranskinean dagoen Valentino txolarrearen txantiloiaaren fotokopiak.

Garapena:

- Gogoratu ipuinari buruz esan duguna: protagonistak Valentino du izena, pinudi batean bizi da eta gorostiaren fruituak jaten ditu, bolatxo gorri batzuk.
- Neska-mutilei beren irudimena martxan jartzen lagunduko diegu, honelako galderak eginez:
 - Zer animalia da zuen ustez Valentino? Nolakoa dela uste duzue?
- Ondoren, eranskinean datorren txantiloia hartu, eta erakutsi hurrei Valentino.
 - Hauxe da Valentino. Zer iruditzen zaizue? Pentsatu duzue txori bat izan zitekeela? Nahiago zenuten beste animalia bat izatea?
- Eman ikasle bakoitzari Valentinoren txantiloiaaren fotokopia bat eta nahi bezala margotu eta moztu dezatela. Itsatsi txolarreak aurreko fasean egindako basotxoan.

ERANSKINA





3 VALENTINO TXOLARREA IRAKURKETA-FITXA

Beharko dugun materiala:

Valentino txolarrea ipuineko ilustrazioak.

Hezitzailearentzako oharrak:

Narrazioaren lagungarri, erabili Manos Unidasen Hezkuntzari buruzko webgunean **lotura** eskura dauzkazun posterra eta ilustrazioak.

Garapena:

- Ipuina irakurri baino lehen, errepasatu basoei buruz esandakoa eta gogorarazi gorostiak nolakoak diren.
- *Valentino txolarrea* ipuina irakurri eta sor daitezkeen zalantza guztiak argitu.
- Ipuina irakurri ondoren, egin ikasleei galdera hauek:
 - Non bizi da Valentino? Zer jaten du?
 - Zergatik geratu dira Valentino eta bere familia jatekorik gabe?
 - Zer egin dute gaizki herritarrek?
 - Nola lagundu dio Manuelak Valentinori?
 - Nola lagundu die Idoiak Valentinori eta basoko gainerako txoriei? Konturatzen al zarete neskaxa gai izan dela herrian gauzak aldatzen hasteko lehen pausoa emateko?
 - Zer gertatuko zen herritarrek egindako kalteaz konturatu izan ez balira?
 - Garrantzitsua da zerbait gaizki egiten dugunean horretaz konturatzea edo norbaitek ohartaraztea, besteei kalte gehiago ez egiteko.
- Egin istorioaren errepasoa, denek ondo ulertu dutela egiaztatzeko.
- Gero, ikasle bakoitzak egin dezala marrazki bat, ipuinetik gehien gustatu zaiona edo ipuinari esker ikasi duena adierazteko. Bukaeran, bakoitzak bere marrazkian jaso duena azalduko du.
- Jarri marrazkiak gelan zintzilik.



VALENTINO TXOLARREA

Valentino txolarre bat da eta pinudi eder batean bizi da.
Egunero-egunero, esnatu orduko, txokoz txoko ibiltzen da, janari bila.

Gorosti izeneko zuhaitz baten fruitua jaten du batez ere, bolatxo distiratsu batzuk, gorri-gorriak.

Negua zetorren eta oso lanpetuta ibili beharko zuen Valentinok, bere amak hego bat apurtu zuelako. Beraz, berak arduratu beharko zuen bere familia elikatzeaz.

Baina, goiz batean, janari bila atera zenean, ez zuen bolatxo gorri bakar bat ere aurkitu!

Oso kezkatuta itzuli zen bere habiara.

—Ama, basoan ez dago fruiturik. Manuela inurriarengana joango naiz. Ziur berak badakiela zer gertatu den.

—Susmo txarra pizten dit honek —esan zuen Manuelak—. Goazen zer gertatu den ikustera.

Manuela Valentinoren gainera igo zen eta elkarrekin herrira abiatu ziren.

Gabonetan ohitura zuten bezala, koloretako argiak jarri zituzten kaleetan, eta pinu handi bat plazaren erdian. Baina gauza batek sekulako nahigabea eragin zien!

Plazako etxe guztietan, gorostiz egindako apaingarriak zeuzkaten leiho eta ateetan zintzilik! Basoko hegazti asko eta askoren janaria zen hori! Nori bururatuko zitzaion halako astakeria?

—Ezin dugu hori onartu! Herritarrek jakin behar dute kalte handia egin digutela, janaririk gabe utzi gaituztelako!

Basora itzultitakoan, Manuelak eta Valentinok ikusitakoaren berri eman zieten animalia guztiei.

—Badakit zer egin —esan zuen Manuelak—. Joan Idoiarengana eta esaiozu zer gertatu den. Berak asko maite ditu animaliak eta egoera konpontzeko eskatuko dio herriko jendeari.

—Baina ni txolarre bat naiz, Manuela. Ezin dut gizakiekin hitz egin; ez dute gure hizkuntza ulertzen.

—Lasai, Valentino. Bada modu bat horretarako: sartu Idoiaren ametsetan.

—Idoiaren ametsetan sartzeko?



—Bai. Gaur gauean, sartu bere etxeko ganbarako leihotik eta joan bere logelara. Jarri bere belarriaren ondoan, eta konta iezaiozu gertatu den guztia.

Hala egin zuen Valentinok. Eta hurrengo egunean, Idoia, esnatu orduko, korrika joan zen sukaldera:

—Amatxori gauza bat esan behar diot! Gauza bat gaizki egin dugu!

Idoiak bere amari kontatu zion bere ametsa, eta alkatearengana joan ziren gertatutakoaren berri ematera.

—Pinudiko hegaztiak janaririk gabe utzi ditugula? Ene! Eta zer egin dezakegu orain? —galdetu zuen alkateak.

—Beharbada negu honetan ezin izango dugu gauza handirik egin —esan zuen Idoiaren amak—, baina hemendik aurrera zaindu egin beharko dugu basoa eta edozein erabaki hartu baino lehen kontuz ibili beharko dugu, inori kalterik ez egiteko.

Manuela inurriak, gordeta zeukan janariari esker, Valentinori eta bere familiari negua igarotzen lagundu zien, eta herriko jende guztiak arduratsua izaten eta natura zaintzen ikasi zuen.